



Familia hori:

Eskutitz honen bitartez jakinarazi nahi dizuegu datorren asteartean, hilak 19, 1. mailako ikasleek goizeko irteera bat egingo dutela.

LEKUA: Pasai Donibane

ORDUA: 8:00- 13:00 inguruan

Hamaiketako eraman behar dute. Jangelan gelditzen diren ikasleei piknika emango zaie (egun hori jangelako azken eguna izango da).

Oinez joango dira Puntetaraino eta han bainatzeko aukera izango dute.

Irteera hau opari bat denez, jarrera desagokia izan duten ikasleak ezingo dute parte hartu eta institutura etortzeko aukera izango dute. Jangelan gelditzen badira, zerbitzu hau erabiltzeko eskubidea izango dute.

Asteazkenean, hilak 20, ikasleek 9:00etatik 11:00k arte institutura etorri behar dute. Egun horretan garbiketa egingo da eta maileguan dauden liburuak jasoko dira. Hori dela eta, eskatu nahi dizuegu zuen seme-alabarekin batera azter ditzazuela, egoera onean daudela egiaztatzeko (marrazki eta oharrik gabe, plastikozko estalkia jarrita, etab.)

Notak ordu horietan banatuko dira eta dena gaituta daukaten ikasleentzat amaitutzat emango da 2017-2018 ikasturtea.

Errekuperazioak ekainak 21 eta 22an izango dira, goizeko 8etatik 14:30ak arte. Ikasgaien ordena web orrian dago eta ikasleei ere adieraziko zaie.

Oporraldi zoriotsua opa dizuegu guztioi.

Agur bero bat

Zuzendaria

Estimada familia:

Por medio de esta carta queremos comunicarles que el martes, 19 de junio, los alumnos de 1º ESO realizarán una mañanera.

LUGAR: Pasai Donibane

HORA: 8:00-13:00 más o menos

Tienen que llevar almuerzo. A los alumnos que se quedan en el comedor se les dará el picnic (ese también será el último día de comedor).

Saldrán del instituto andando hasta Puntas, donde tendrán oportunidad de tomar un baño.

Siendo esta salida un premio, aquellos alumnos que han tenido una conducta inadecuada a lo largo del curso no irán y tendrán oportunidad de quedarse en el instituto. Si se quedan en el comedor, tendrán derecho a utilizar este servicio.

El miércoles, día 20 de Junio, los alumnos tendrán que acudir al centro de 9:00 a 11:00. Ese día se realizará la limpieza y recogida de todo el material, incluida la entrega de libros en préstamo, para lo cual les pedimos que los revisen con sus hijos/as para asegurarse de que están en buen estado (borrar dibujos o anotaciones, forrarlos, etc.) Los boletines también se entregarán en esas horas y se dará por terminado el curso escolar para aquellos alumnos que han superado todas las asignaturas.

Las recuperaciones se realizarán los días 21 y 22 de junio, de 8:00 a 14:30. La hora de cada asignatura está en nuestra página web y también será comunicada a los alumnos.

Les deseamos a todos/as unas felices vacaciones.

Un saludo

La directora